

Martin Ugalderen hitzak UEUren inaugurazioan: "Ez digute gure unibertsitatea izaten utzi, ezta beren hizkuntzan ere"

[Egile ezezaguna]

Deia, 1985-07-16.

Atzo eguerdiko hamabietan eman zitzaion hasiera, azken urteotan ohi bezala, Iruñeako Larraona Ikastetxean XIII. Udako Euskal Unibertsitateari. Egia esan, orain dela hamabost egun hasi zen Baionan UEUren aurtengo edizioa astebeteko ikastaroarekin. Atzokoan ekin zitzaion UEU-ren zati mamitsuenari Larraoan, eta bere zuzendaria den Baleren Bakaikoak oroitarazi zigunez, azaroaren azken astean eta abenduaren lehendabizikoan izanen du jarraipena Donostian zenbait hitzaldi eskainiz.

Martin Ugalde idazle eta Eusko Jaurlaritzaren Kultur Sailaren Euskara arduradun ohiak, Eugenio Arraizak, UEUren Idazkari Orokorra den, Mari Karmen Meñikak eta Baleren Bakaikoak osatzen zuten sarrera hitzaldiko mahaia. Baleren Bakaikoak eman zuen ongietorria Iparraldeko ikastaroaren herri emanez eta hango kultur problematikaren berezitasunari UEUk eskaini nahi izan zerbitzuaren garrantzia azpimarratuz. Aurtengo ekitaldian faltako diren bi partaiderentzako oroigarria izan zuen: Larraonako ikastaroak izango dituzten osagarriak ere gogora erazi zituen, hala nola, bideo emankizunak, filmeak, "Itoiz" taldearen kantaldia eta beste.

Sancti Spiritus Unibertsitatearen historia

Martin Ugalde idazleak eta historiagile ezagunak egin zuen sarrera hitzaldia "Oñatiko Unibertsitatea" gaia jorratuz. "Sancti Spiritus Unibertsitatea" izan zen urte askotan, Euskal Unibertsitateak bere historian ezagutu duen erakunderik interesgarrienetako baten gorabeherak aztertu zituen, bere fundatzailea izan zen Rodrigo Saez de Mercado de Zuazola apezpikuaren bizitza eta lanetan zentratuz. XV. mendearen bukaera aldeak Oñatin jaiotako gizon hura Euskal Herriaren eta gure Unibertsitatearen historiak ezagutu duen unerik mamitsuenetako batean egokitu zen.

Hala ere, eta bere hitzaldiari zuzenean ekin aurretik, UEUk Ustaritzen ospatzen zuen eta berak ere gertutik ezagutu zituen lehendabiziko edizio haiek gogoratu zituen, geroztik hil zaizkigun adiskideentzako (Santi Brouard, Monzon...) oroimen hitzez.

Nafarroako gobernadoreztatik Oñatiko Unibertsitatea eraikitzen

Bere sorterriari unibertsitate bat utzi nahi zion Rodrigo Saezek eta oztopo handiak zituenez Erregearen Goertetik, baimenak eskatu baino lehen hasi zituen obrak. Martin

Ugaldek aipatu zuenez, garai hartan bitxia zen apezpiku batek Elizari utzi beharrean bere ondasunak herriari egitea holako opari bat.

Bere hitzaldia amaitzerakoan garrantzizko hiru aipamen egin zituen. Alde batetik, euskaldun bekatu nagusia ez elkar hartzea dela, nafartarrei Oñatitik egin zitzaien konbitea eta ez zuten onartu; XIX.aren bukaeran Iruñetik deitu zieten beste hiru probintzietan eta berdin. Elizaren jokabideaz egin zuen bigarren aipamena Martin Ugaldek, beti onartsuen aldamenera babesten denez, hemen ere estatuaren zerbitzari leial izan dela gogoratuz. Hirugarrenik, Unibertsitatea Euskal Herria kolonizatzeko erabili dela esan zuen: "Ez digute gure unibertsitatea izaten utzi, ezta beren hizkuntzan ere".

Martin Ugalderen hitzokin eta ikasle eta irakasleei eman zizkien animoekin hasi zen aurtengo UEU Iruñean. Egun lasaia atzokoa, prestaketa lanek, agurrek eta lehen kontaktoek osatua.